

*Haraguiaren amorio desordenatuac eguitem duen bigarren, eta hirur garren calteaz, ez-tuela den ahaicoaric burcoenaz ere con-zuric eguitem, eta ez hartaco suramenturic compliscen.*

## CAP. XXXII.



Haraguiarēn amorio desorde-natuac hain da gauça itzua, eta itzugarria, non halaco amorioa duenac ezpaitu batçutan ahaicoaz ete conturiceguiten.

*Ingressus est Absalon ad concubinas patris sui, 2. Reg 6 coram universo Israel. Sathucen Absalon munduguztiac cecusala bere aitāren amorantērara edo emaztērara, eta han hequin seguitu çuen, eta içan parte. Halatan mehatchatur cituēn sondone Pauloc ere Corintioçac, çeren bere vgaçamarequin etçaten çenbat, bere artean sostengatcen çuten.* 1. Cor. 5.  
*Omnino audetur inter vos fornicatio, qualis nec inier çentes, ita ut uxorem patris sui aliquis habeat.*

Hafa erraiten da, Neron gaixto hate ere, Erromacō andre prestnen erdiac desohoratuç guēro, eta iduri onetaco muthil gazte

## 350 HARAGVIAREN BECCATVAC

bat, itcuffen çuenean, harequin ere, naturale-  
ça bera ere narda den beçala, legoruz guero,  
azquenean bere ama propioaz amurustu ce-  
la: bere ama bera, ceñen sabeletic itzqui  
baitcen demandatu çuela. Eta hartaraz guero  
emaztea bera ere comunzqui aitatcen, quili-  
catcen, eta gogoetan lucrera beha iatcen da.  
Ceren materia hunetaco pilotu on hatec  
dioen beçala. *Illa est casta, quam nemo regis-*  
*ur.* Nehorc orhoitu, era orhoitzu eztuena,  
da casta, garbi, eta prestu. Anhitzetan haz-  
teintu ossoqui orhoac, bere chito guztiaz,  
nirua oldartu gabez. Anhitz egur eder guel-  
ditecenda oihanean eccarleric gabez. Iarrai-  
tunic içan eztuena, mandaturic edo talhoric  
eguin etçaicana, nehorc ernatu, orhoitu, eta  
behatu eztuena, erran ahal diteque segurqui  
bere ohorean dagoela, eztela erori, eta ez  
limburcu. Baiffa demandatuz guero, oldartuz  
guero, bulccatuz guero, eta gai denac, gai de-  
nari, bere moldean, paradan occasinoá, dem-  
boran, eta sequeretuan nabarbentciaric gabe  
aditecra emanez guero, perit da, baldin choil  
gogor ezpada, bera dadin, limbur dadin, aino-  
ra dadin: Eta demandatua içaice hura, harta-  
coa dela, eta ederra dela ençute hura, eder  
iduri daquion. Bada Neronec bere amari  
mandatua eguin cioen, eta ama ere etcen  
munduco emazteric prestuena, beraz perile-  
tan içan ciren. Eta bada erraiten duenic, biac

Ouid. El. 2.

## EGVITEN DITVEN CALTEZ. 351

carroçan edo cotchean ibili cirela, eta han bere iocoa iocatu çutela.

Hala Henrico, icen hunetaco çortci garren, Ingalaterraco Erregucac ere, bere emazte prestua vteituc, bere alaba bastarta, bertceren emaztea ganic eguina, hartu çuen emazte. Eta handic bere burua, eta bere errefumaco guiristinatun guztia, galdu cituen.

Petrus de Ribadenei. ra. lib. 1. Hi. stor. Angli. ca. cap. 7.

Bada bertceric ere hunelaco casuric, eta exemploric anhitz, gaitz baillçateçue, laurdenen ere contatçea. Ascoda iaçuitea, behin behar ezten amorioa iaunduz guero eztela legueric beguiratcen, eta ez den ahaiçoa e harcoenaz ere, conturic eguiten. Cein baita haragoiaten beccatuac eguiten duen bigarren caltea.

Hiru garren caltea da. Ezta arneguric, iuramenturic, eta ez falsariac, emaztetan itfutua dagoen batec ezta diqueyenic, eta ez gueçurric ere erran ezteçaqueyenic. Handic harat hala itfutuz guero, lehen hiez onetaco, eta eguiati cirenac, eguiten dira gueçurti, arnegari, eta iuramentusu. Ceren bere desiren hittea ganic prometatcen dute anhitz, eguiten dute milla iuramentu: baina guero nahi dutena, iragan dutenean, ezte conturic eguiten, ezte deus complitecn, guztiaç hautsteintuzte. Eta hala etcen lehen agoco jentilén arcean,

## 352 HARAGVIAREN BECCATVAC

Alexander  
ab Alexan-  
dro lib 5.  
cap 10.  
Plato. lib. 5.  
de amore.

halaco, eta hartaco iuramentuez, conturic eguiten. Halaco moldez ecen ethorri baitcen Platon erraitera, Iaincoec ere dissimulacien cituztela amurusen iuramentuac, eta promesac. Eta egungo eguncan ere, ezta halaco iuramentuetan cer sobera fidacuric. Ceren amurus ifutua, bere plazeren ondoan dabiltega, eta ez vere promesen edo iuramentuen complimenduaren: Cein baita haraguiaren beccatuac eguiten duen hirur garren caltea.

---

*Haraguiaren amorio defordenatuac eguiten duen laur garren caltea, amoltsu, eta baquezco circenac, eguiten baitatu cruel, eta guerlati.*

## CAP. XXXIII.



Morio defordenatuac hanbat calte eguitendu, non behin hanc ifutuz guero, amoltsu, eta baquezco circenac ere, eguiten baitatu anhitzetan bere defiren complicitcea gatic, traidore, bihotz gogor, cruel, eta erhaile.

Erregue David lehen, hain saindu, bihorzbera, eta misericordios cena; eta bere cfaiey ere bethi ongui eguiten, eta barccatcen hari ceyena; egui cen azquenean hain dif-

EGYITEN DITVAN CÁLTEZ 353

ferent non vriaz bere adisquide maitea, eta capitain ley. la haren emazteaz gogaitica gatic, hilaraci baitçuen.

Hala halaber frai Ioan Guerin, hain saindu handi aren faman egoen hanc ere, Guisfrap. los Barcelonaco Coudeartn alaba, gome. oran eman ciotena, gorputz ez içan çuenean hilaraci çuen. Hala guechatu, ceican iondone Iacue penitencialea deitcen çuten hanc ere, haubat demboraz erlai gaixioaien tentamen duac, ichilic eta aguerritz garaituz guero, hanbat penitencia eguinez guero azquenean hain itusqui erori cen, non sendatceco eccarri ceraucaten nescato bat bere ona galaraci baitce raucan, eta guero azquenean bere beccatuaren estaltea gatic, vra bethera egoeci baitçuen.

Historia in ontis ser cap 2  
Metaphraf. 10 via e- iusdem die 28 Ianuar.

Hemen erran ahalditeque, gure salbatçail- leac bere passioneco egunean, Ierusalemeco alabey erran cerauens.

*Si in viridi lygno hac sum, in arido quid fiet?*  
Baldin Erregue David eta erranditugun bert- ce prestuna saindu hec, hanbat demboraz, ha- raguiaren appetituen venguten, oracinotan contemplacinotan eta penitenciatan egon ci- ren hec, hain torpequi, haraguiac iturric erori baciren; cer içanen da. laincoz, munduz eta concientciac conturic eguin gabe laçoqui eta antficabequi bat ere crinaric gabe biciteen direnez? Eta aie beccatu, eguiteco occasino *õilha dabilçanez.*

Luc 13.

## 354 HARAGVIAREN BECCATVAC

Aita batec bere semeari diaducon amorioa, delaric handia eta naturala, guziarequin ere, amorio desordenatuac, hain flacacen eta cordocacen du amorio natural haur, non batcuetan erroctaric erauzten eta atherac cen baitu.

Salsust. in  
vita Catil.

Catilina Erromaco guizon gaixto harc, etquen seme bat baicen, eta hura ere ia adinertara heldua, obedienta bere manucoa, eta asco prestua. eta guziarequin ere, bere desira delordenatuac, Aurelia ceritçan andre batequin complitcea gatic, hil araci çuen bere seme hura. Ceren hura bici ceinõ, haren veldurrez, ezpaitceican Aurelia behatu nahi. Hala esquiribatcen du Elianoc ere Lenilla ceritçan andre handi batec, bere plazerac, bere plazerera, bere cerbitçari batequin iragaitea gatic accusatu cituela bere seme propioac Erregueren aitcinean, erraiten cela ecen traïdore citela.

AEllan. de  
hustor. ani-  
mal lib 1  
cap. 6

Eta hãdic eguiaz edo gueçurrez frogãtçac egui nic gal araci cerauztela biciac. Eta guero nehoren veldur gabe, guelditu cela, bere cerbitçariarequin, bere amorio isuan isfuta.

Aust lib. 2  
Politicap 1

Halatan erraitendu Aristotelec, ongui equin çutela lehen agoco Poetec, Mars eta Venos elccarrequin ezcontceaz: Mars guerla guçona eta Venus amurusiaren patroiña Guerla eta amurusia ezcondu cituzien elccarrequin.

## EGITEN DITVEN CALTEZ 355

Ceren cpmunz qui amurufiac fortcen bai. tira guerlac eta differentciac Halaran haleber lehen agoco ientilec eracusteco, cer azura eta conplecino çuen emazte gaixtoac, pintaicen çuten lehoïn bat emazte beguitartearequin. Indicino

Ceren emazte gaixtoac lehenbician lausengatcen eta baiacaiçen badu ere, ordea azquenean, lehoïn gofseac beçala larrutcen eta defeguiten baitu. Hargatic erraiten du Spiritu saïnduac *Fanus enim aïstillans labia meretricis & nūdus oleo guttur eius, Nonissima autem illius amara quasi Absynthiū* Ez temoçula conturric emazteaten balacuari eta enganamenduari. Ceren ezta dation berasca beçala dira haren ezpaiñac eta olioa baiyo leunago harē leppoa, ordea ondorea azquen fina Abscintio belharra beçain min eta goço gabe. Proverb. 5

Lehenbician amorio handia, azquenean gaitz erizcoa errabiatur. Lehenbico egunean befarca, hurrencoan colpeca Adifquidetafunetic etsaitafuna, amoriotic defamorioa fortcen da.

Erran behar da handia dela Satan gaixtoaren artea, bi gauça hain differentac, nola baitira amorioa eta defamorioa adifquidetafuna eta etsaitafuna elcarrequin iuntacē eta bara bertcea ganic atheratcen diruenean.

Haraguiaren placeretan ez ohi da dantçatic, eta irriric; baicen iateric edateric eta amorioric baicen, eta guzciatequin ere

## 356 HARAGVIAREN BECCATVAC

ere etlai gaixtoac gauça hauc guzrioc imprentuaz beçala bertce aldera itçulceintuc: Onherizcoatic gaitz erizcoa:baquetic guerla, irritic nigarra, eta dantzatic ( Herodes baithan eguin çuen beçala ) heriotcea atheratcen du.

Honelatan athera dadin eguiatan Salomonec dioena. *Extrema gaudij luctus occupat.* Atseguin dasunaren fina eta ondorea atsecabea da , eta dolua : Ezti- Berazcatic Absintioa, placeretic desplacera sortcen da.

Amorio defordenatua , bereaz eguin duenean , def amorio bihurtcen da. Haur da , haci hunetatic sortcen den bihia , amorio defordenatuac eguiten duen laur garren caltea , baquezcoen guerlati , eta bihotz beren , eta amoltfuen omorio gabe, eta bihotz gogor eguitca , eta errendacca.



## EGVITEN DITVEN CALTEZ 357

*H araguiaren amorio desordenatuac eguiten duen  
berz garren calteaz : soseguric eta pau-  
suric gabe ibenteeaz.*

## CAP. XXXIV.



Araguiaren appetitu desordena-  
tuac eguiten dituen, desordeauetz  
eta caltez mintzo garenaz gue-  
roztic, goacin aitcinago, eta edi-  
renen augu, ecen emazte guica-coiac, eta e-  
ma-coiac, presuna putanerac ezuela deuse-  
tan ere soseguric, eta ez pausuric.

Norç erranen du, cenbat atsecabe, cenbat  
gau eta egun gaixto iragaiten duen halacoac,  
hala guiconic nola emazteac? Nola compai-  
nia prestuac vctiric, bere eguitecoey guibela  
emanic, loa galduric, bera baccarric itçal  
gaizca, airatua, basatua eta iduricortua ibile-  
cen den? Eta erraiten duen bere baithan? Ie-  
cussiorhe naure? Cer othe diore nitçaz? Eta  
deus ençuten badu, diotela, hasterrecen da,  
gaitzerizcoan batrequin eta bertcearequin  
iartcen da. Ceren nahi luque, hura bera be-  
çala, bertceac ere itsu liren, eta nehore ezler-  
rau deus. Eta ala baiña ezta hartazco totha-

*Guicon*

## 338 HARAGVIAREN BECCATVAC

sic baicen.

Guztieg, batak alde batetic, eta bertceac bertetic, saltla nahastien, eta iratitocen dute guztac hartçaz mintço dira. Bertceric ez paz ere, bere amonanteac berac etcacceu dio berri franco: norcer dioen, noi nola mintco den, direnac, eta ez direnac, garralstcen derautça. Cerenhalacoac, hattaco dira on eta ez bertcetaco. Han da munduco el, ha beñri, erran-merran eta nahasteco guztia

Nic vtedut ecen emazteia emana den guçona hala deñio, ecin dat. queyeia ongui eta guztiz ere baldin ezcondua bada. Ezcondu gabe baten erotcea behar ezten emazte batequin seguitcea e zta ongui becatu da. Baiña aldez ezta hain miresteco munduco arauaz.

Ordea ezcondu batec, emazte ederra, eta prestua duen batec, hura viciric, har deçala itsusbat, begui-ceihar bat, ezquel bat, betheriatfu bat, finean eztheus bat: eta harequin iostia beçala egon dadilla.

Erran behar da adimendua itsutu çaicala memoria nahasi çaicala, eta vorondatea behar ezten alderaitçuli çaicala. Halacoaren erchean ezta guerlaric, liscarric, eta bicitce gaixtoric baicen. Ceren emazte ezcondua ezta deusec ere, hala guiharran vquitcen, crozcan erauzten, eta ez bere tentutic eta pacientciatic atheratcen, nola bere senharrà bertce-

EGUITEN DITVEN CALTEZ 359  
requin diabilcola iaquiteac.

## § I

**B**Aiñe guero nahi nuque iaquin :guiçon ezcondua bere emazte prestua vteric, cerc hala, behar eztenaren hartcera itsutcen du? cerc alda guratcen du? Hitz gutiz ihardesten du San Hieronimoc. *Quicquid non licet magis desideratur.* Nehorc debecu den gauça fori eztena desiratcen ago du, hartara lehi ago du. *Aque furriua dulciores sunt*, dio Salomonac. *Ut ebatisiac ezti ago eta goço-ago dira.*

Hieron. in  
cap 13 ofce

Halatan Plautoc ere, hobequi ago saltceagatic eguiten çuen oiñu, emazte ebatisiac ceçazqueyela. eta Poetec adulterioa deitcen çuten, epascoa ohoin queria. Haur da lehenbico arraçoña, ceren guiçon ezconduac, berea baiño bertceric nahi ago duen. Ceren berea ezpaitu debecu eta bai bere eztuena, eta nehore debecura lehi ago baitu. Halaberbi garren arraçoña emaiten du San Geronimoc berac leccu berean. *Quod varietate dulcis est assiduitate vilescit.* Bethi ere coac, higuintça emaitendu, alda nahia eccarceñ du. Nola guiço ezconduac berhi ere baitu bere emaztea here estuco bereaz fráquia, eta bertcerenaz est. casia eta escas de gauça maitaro eta iarraiquiz

Proverb. 9

## 360 HARAGVIAREN BECCATVAC

içaiten dena, cesiratcen ago, eta goço ago i-  
quiritcen baita, halatan presuna ezcondua be-  
rea vtinic, bertcerenera iehiatcen da, alda  
nahitcen da eta handic gaitcen da.

Ceren amorantea eguñez guero, haren  
gana egoizten du bere gogoa harequin, ga-  
star ceintu bere onac:handic harat bere emaz-  
teari, eta haren ganic içan dituen hautrey,  
guibela emaiten deraue. Eta baldin on han-  
diac ezpaitu, ecin dateque errumeztu gabe.  
Ceren amorantea, eta guztiz amorante mia-  
ña eta escalea, huutz adarra beçala da.

Huntçac inguratcen du çuhaitça, besarcat-  
cen du, edosquitcen du eta azquenean ihar-  
cen du. Hala bada amoranteac, bippiltcen du  
larrucé du, ariman eta gorputz ean ihartcé du

Vrricalquiçun da halacoa: eta bai amoran-  
tea ganicaco hautra ere. Ceren nola ezpaita  
legitimo, nola baita, bastart, bort, ezcont-  
çaz campoan eguina, ecin minça diteque li-  
brequi ien darteon, ecin bururic ailcha deça-  
que: bere hala lehenbicio liscarrean, puta  
seme deitcen dute.

Eccles. 4. Hargatic erraiten du Salomonec, edo ha-  
ren ahotic Spiritu sainduac. *De patre impio  
quaruntur filij, quoniam propter ipsum sunt in op-  
probrio.*

Aita gaixtoaz errencuratcen dira semeac,  
ceren hura dela causa baitira dezohorezco  
Seme bastartac berac eztu hobenic, baiña be-  
ie aitarena

## EGVITEN DITVEN CALTEZ. 361

re aitarena gatic, eccarrî behar du burua behera. Solon handiac Ateniascoen maêstruac umec bere aita ametara duten obligacinoaz mintço dela, nola ohore eccarrî behar derauçan, eta bere behar orduetâ, eta goztuz ere çahartceâ, behar ditutzreo faboratu, atherarceintu obligacino husetaric bastariac, ez contrçaz landan eta campoan eguinac legitimo ez-tirenac. Eta arraçoifia, çeren aita ama hec el carrequin batcean eta iuntarcean, intencione guehi ago içan baitçuten bere placer defordenatuen complitçeo, seme eta alaba içaiteco baiño eta nola hequen vorondatearen contra eta hec nahi gaberîc egninac baitira, hala dutela mereci gazrigu hura eta guehi ago ere.

Iccussacu cein gaizqui den guiçon ezcondua, bere emaztea vçerîc, behar eztenarequin dabillana, eta bai hecatic içaiten den hautra ere.

Bada eritasun hunez cutsatua guerthatçen den Eliça guiçona are da gaizqui ago eta galdu ago. Perilda halascoac, alaide probe guri ezconduco duen erremusinac bakhan eguinen dituen. Çeren amorantea eguinez guero, bere gogoa eta dihorza, haren baithan ibentcen baitu, eta bere onac ere harequin gatarçen eta hondatçen baititu.

Bi beccatu fuerte dira, beguiz begui, eta artez Eliça guiçonari contra dagotçanac, Eliça guiçonaren etfaiac eta galgarrîac.

A a

## 362 HARAGVIAREN BECCATVAC

Bata da emaztequin seguitcea, eta bertcea eta saigoan egoitea. Nahi du laincoac, haré etheco cerbitçariac, appez ordenatuac dituen guztion gaineric bi abantail, baquea eta garbitasuna. Ceren sagaramendu garbi bat, eta baquezco bat erabilcen baitu escuen artean. Beraz hunelatan etsaigoan dagoena ere ez, baiña guztien gaineric emaztetan dabillana ezta appezetaco on. Eta hain da eguia haur, non vste baitut ecen, emaztetan saltaric ez tuen appeçeri, bertceric anhitz falta içan agatic ere, hec guztiaç hobequi barcca, estal eta dissimula daquidit çayola: eta bertce guztieç ez tute-la hala desuistatcen, eta ez bere ohorean notharçen, nola emaztequin ibiltceac, eta curfatceac. Emaztetan eztabillan appeça, emaçû saindurçar: eta dabillana, hala dabillaino emaçû galdurçar.

Beraz hunelatan, principalqui Eliça guigonac, eta presuna ezconduac, baiña guero beguira biteci bertce guztiaç ere, haraguiaren lohian sartcetic, eta hidoiztatcetic. Ceren behin hidoiztatuz guero, iaquin ahal deçaquete ecen caltiar, eta sofegu gabe içanen direla: ez tirela vrriqui gabe guettharuco. Eta guero eta guero, cenbarenaz, eta guehi ago, egonen baitira, hanbatenaz barren ago sarthuco, eta nequez ago ilquitco, eta garbituco direla.

363

*Haraguiaren beccatutic beguiratceco , eta han-  
dic heldu diren oalten erremediateco , lehen  
biceco , erremedioa , eta bidea  
Oracnoa.*

## CAT XXXV.

**H**araguiaren placerey , desira defor-  
denatuey , eta eguiten dituen cal-  
tey , erremedio emaiten hafi baiño  
lehen , erran nahi dut gauça bat,  
eta ibeni eta paulatu eguiatzco cimendu bat.

Emaztétatic elscapatcea , castitatearen be-  
guiratcea , haraguiaren beccatuan erori ga-  
be eta cufatu gabe egoitea, irautea eta perse-  
ueratcea , Iaincoaren donua , dohsaña, emai-  
itça eta garacia dela. Eta garacia hura ga-  
be, alfer direla , gure ahala , nahia permat-  
cea , eta ensein guztiac. *Non est Uirgini-  
tas qua pratio emiur , non uirtutis studio pos-  
sidentur.* Dio san Ambrosioco. Ezta ez Vie-  
ginitatea diruaren pisuz eta gure indar-  
rez eta verthutez erdiesten den gauça, ce-  
ren haraguiac , haraguiaren vençutcea : nar-  
turaleçac naturaleçaren azpirateca , gaitz da.  
Hartacotçat bertceren faborea, naturaleçaren

Ambros.  
lib 5 ep.  
31.

## 364 HARAGVIAREN BECCATVTIC

gairican escu duenarena behar da. Eta hala iaquin ahaldeçeque bat bederac, ezteçaqueyela haraguiaren contra victoria ossoric erdiets, bere ahalean fidatcen deiño, berac eztuela deffendatceco indarric asco, estitua, gogatua, eta errendatua tar arteiño. Behar du eçagutu, bere etsai haur garai çaicala ezitrela indarrez berdin. Eta hala dela eçaguturic, behar du halaber lagun bilhatu, eta fabore escatu baldin nahi ez padu caltiar guertatu eta rençutua guelditu. Haur da eguia haur eçaguturic, erran çuen Salomonec.

Sap. 8.

*Vt scivi, quoniam aliter, non possem, esse continens nisi deus det & hoc ipsum erat summa sapientia, scire, cuius esset hoc donum, adq̄ Dominum & deprecatus sum illum.* Iaquin nuenean, ecin nengoqueyela erori gabe, Iaiucoac eduquiten ezpaninduen eta huner jaquirea ere laincoaren donua cela ioau nintçaican bere hala editeitera, eta eguin moen othoitz: bere elcutic eduqui nintçala, erortcetic beguira nintçala, eta garaitiarequin gnelditceco indar eta antce eman ciaçadala Halatan eguia hunen berri ciaquienac beçala, eguin cioen othoitz San Augustinec

August. 10  
conf. c. 24  
ere laincoari, erraiten cioela. *Continentiam inbes. da quod inbes, & iube quod vis.* Manatcen duçu, beguira deça gula castitatea, emaçu bada manatcen duçuna, eta guero manna eçacu plazer duçuna: manna beçala, emaçu, manuaren complitececo eta beguiratceco



## BEGVIRACTCECO ERREMEDIOAC. 365

indarra ere eeren halatan bai, baiña bertcela ezta complitceric eta ez beguiratceric.

Bada haraguiaren beccatúan , lehen edo guero, aldez edo moldez, obraz edo gogoz, cútufatu gabe, edo limburtu gabe egoitea, eta irautea, Iaincoaren donua eta emaitça, guero gueure indarrez, ecin erdiets deçaqueguna, denaz gueroztic, erna gaitecin iratçar gaitecin, eta erortcetie beguiratceco, ahal diratequeyen habeac, softenguac eta erremedioac bilha ditçagan.

Eta lehenbico erremedioa eta softengua da oracinoa, othoitza. Gucureaz denaz beçan batean, errendatuac iarriric, garaitia emanic, erauqui erranic, ezrugula indarric asco eçaguturic; gueure Iaincoari heldaquigula, eta bere escutic eduqui gairçala othoitç eguitea, Eta othoitç hunequin batean ama Virginaren, castitearen patroin beçala ararteco ibeotcea. Ceren baldin Eliçaco doctor batçuec dioten beçala, ama Virginac, are mundu hunetan cenean ere, nori ere, eta norc ere behatcen baitcioen, hari, haraguiaren desira desordenatuac eta gogoeta liçunac iraunguiric, hequen leccuan gogoeta garbi batçuc, eta garbiqui bicitceco, nahicunde handi batçuc; pitçten eta emaiten bacerautçan: Cénbatenaz orai han goititic, loriatic, hanbat credit eta escu duen leccutic, bere debotey, eguiazqui gomendatcen, çaiçconey erdict-

Ambr'of.  
de institie  
Vũg c 7.  
§ 1 hom 3.  
Sentent.  
q. 1. art. 3.  
ad L.

## 366 HARAGVIAREN BECCATVTIC

fico deraue , eta erdiefiric emanen deraue , haraguiaren tentamenduen haiçatecco eta vençutcecco , indar , bothere eta garacia ?

Beraz daguiogun Iaincoari othoitz eta oracino , emaiten diogula ararteco bere ama Virginia , beguira gaitçala , fabora gaitçala.

Ceren lehenbicio erremedioa eta erremedioric hoberena , haraguiaren lohian ez sartcecco , eta sarthuz guero ere , fite ilquitcecco , aratz eta garbi guelditcecco eta egoitcecco , haur edirenen dugu , Iaincoari gogoz eta bihorcez othoitz eguitca , eta ama Virginaren ararteco ibentcea eta emplegatcea.

367

---

*Haraguiaren beccatutic beguirateco, bi garren erremedioa; hartaco gogo etey, leccurwice? emaita.*

## C A P. XXXVI.

**B**I garren erremedioa, eta erremedio ona eta hautua, emaztequin cutlacu nahi ezuenatentçat, da, hartaco gogoetez beguiaren edukitcea; heldu direla iccusten direnean atheraren herstea. Sua pitzten denean da eraxenic irauguitceco; eta bai landarea ere tripi denean bir landatceco eta atherateco.

Gogo etetarie, pensatcen egoiteric heldu dira beccatu guztiac, eta guztiz ere haraguiarenac: handic hasten dira, hec dira chertoac, hec dira landareac eta etroac. Hec beraz behar dira handitceric beguiratu. Soldaduac etchean barrena sarthuz guero, nahi duena eguiren du: hala eguiten du bada halaber nahi duena gogoeta gaixtoac ere, gogoan oltatu hartuz guero, han behin pausatuz guero.

Suco ioharra, suco chinda, bera ere bere buruz fite irauguitcenda; ordea çuc an arteinãno iguriqui gabe, pausatcera ere vici gabe

## 368 HARAGVIAREN BECCATVTIC

bere hala poutu berean , ceure ganic egortzen duço. Hala bada emaztetaco gogoeta gaitxoá ere , bere hala aguerccen den beçain fite haiçatu vrrundu , eta ceure ganic egortci behar duçu.

Egun batez galdeguin cerancaten frai Gil, San Fiácitcoren lagun faindu hart, ea cer molde, edo nola garaiten cituen haraguiaren tentamenduac, guticiac, quilicadurac eta hartaco gogoetac? Era ihardet si çuen. Ene vorondatearen atheac ioiten dituzten gogo eta gaitxoey erraiten derauet. Ea tenta garriac, iragan aicitinat: ezta hemen çuentçat ofstaturic eta ez paufa leccuric. Eztut erichean barrená sartcera vtzten , ezterauet beguitarteric eguiten ezterauet ofstaturic emaiten , ez naizhequin goçaticen, era ez solhasean iartcen, bere hala iauci eraguiten derauet: eta halatan, ez hec ni , baiña nic hec garaitceintut.

Ehortcen çaitçu gogora behar ezten emaztes , eta hareçqaico placera: eta çuç gogoeta hura ceure ganic , bere hala , egortci, behar bidean nois egortcico duçun ecen haitan çaporatcen çara goçatcen çara , eta are obran baitcina beçala , anhitz eran ere , ceure gogoan atieguin hartcen eguiten çara , çta hala egonez beccatu mortal handitan erortcen çara.

Ceren ez obratu agatic , obratecco gogoá , eta are obratecco gogoric gabe ere,

## REGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 369

gogoeta hartan atseguin hartcea, beccatu da. Hala erraiten dute Theologoec. *Non solum consensus in altum, sed etiam consensus in delectationem est peccatum.* Hunen arauaz erraiten du san Geronimoç ere. *Peris & monte virginitas.* Galtcenda, gogoz ere, uirginitatea. Eta badio Casianoç ere. *Mulierem ignoro, & virgo non sum.* Eztaquit emazteren berritic, eta ala baiña eznaiz virgina.

Ceren san Matheoc dioen beçala. *Qui uiderit mulierem ad concupiscendum eam, iam machatus est in corde suo.* Emazteari, desideratceco, eta desira hartan atseguin hartceco conuan, behatcen dioenac, eguin duque ia bere gogoan, eta bihotzean beccatu pontu haur consideraturie, eta huni erremedio eman nahiz, erraiten çuen san Gregorioc. *Celer ergo & facilis uictoria contra libidinem est, circumspectio cogitationis, si quoties carnalia obuiant, ad aliquid aliud recurramus, quod libidinis incitamentum non sit.* Haraguiari contra eguitceco, eta haren ganic uictoria erdiestece, bide ona da, eta lasterra, hartaco gogoetey beguiaren eduquitcea, eta hequen leccuan bertce gogoetari lotcea.

Gure gogoa ecin dagoque gogoeta gabe; ecin gauteque, cerbaitetan pensatu gabe. Pontua da ea certan pensatcen dugun, nolaco gogoetac otugun; eta baldin gaixtoac badiugu, ytz hec, eta har hequen leccuan onac.

Hieron. ad Paulum Casian l. b. 6. cap. 19.

Matth. 5.

Gregor. in cap. 6. Reg.

## 370 HARAGVIAREN BECCATVTIC

Beguirautçu, etçaudela emaztétan pensatcen. Ceren pensatce hartaric erhortico çatçu atseguin hartcea : atseguin hartcetic, dehratcea : desiratcetic bidén eguitea, eta obratcea. Et aguztiac heldu dira, gogoaren lehenbicio orhoitçapenetic, eta orhoitçapen hari leccu, eta ostaru emaitetic, erroen eguitera, eta handitecra vtzetic. Beraz hartaric beguiratu behar da. Ceren hura da emaztétaco beccatutan erortcetic beguiratceco bi garren erremedioa : hartaco gogpetey leccuric ez emaitca, aguertcen direnean khentcea, baratcera ez vtztea, eta ez sofegatcera : veltçuri bai, baiña beguitarteric ez eguitea.

---

*Haragiaren beccatutic beguiratceco, hirur  
garren erremedioa, vorondatearen  
deliberamendua.*

## CAP. XXXVII.

**Z** erortceco, eta eroriz guero ere, iaquitceco, erremedio handia da, gogoa, vorondatearen deliberamendua: hain handia, non berce guztuac alfer baitira, deliberomendu hura ga-

## BEGVIRATCECO ERREMEDIAC. 371

be. Iaincoaren, aldetic, behar da haren garacia, eta faborea, eta guretic, gure gogoa, eta vorondatea.

Emazte batequin beccaturan çaudenean, eta peril handian, hala çaudela, ceure azquen egunac ediren çaitçan : cer bide içanenda, peril handi hartaric escapatceco? Emazte haren utzteco? Cer? Gogoa, vorondarea, apartarcera deliberauqui deliberatcea.

Ethorcenda Iubilio bat, edo befta - buru bat, edo garçuma: Eta hetaric bateran, icuffiric ecen bertcela galdua çoacilla, eguiten duçu vrriquimendu handi batequin coffeffione general bat, ceure mendeen eguidutçun falta guztiez, harturic vorondate fin bat, ez guehi ago emazte haren gana, eta ez bertice halacotara bihurtceco. Eta handic harat hala compliceen duçu, etçara guehi ago bihurtcen. Haur da erremedio ona, eta hartu behar den bidea, itfutura, eta beretacotua çadutçan, emaztearen utzteco.

## §. 1.

**O**Rdea utzte haur, amorantea ganic aparratce haur, nola edo cer moldez eguinen duçu? Onez onerata, etfairu gabe, ala etfaturic? Baldin etfaitcen baçara,

## 372 HARAGVIAREN BECCATVAC

Igilduro.

horra non duçun bere hala amorante haren ganic milla burho, eta maradicino: erran mer-ran, eta desohore: erasicodu oihñ eguinen du, eztu nehorc ichilduco. Bada etsaitu gabe, eta gaitzera ethorri gabe, onez onetara apartarcea ere, gaitz icanen da, eta perilos. Ceren lehen trebatuac içan, eroriac içan: lehen beçala elccarrequin egoiten, ibiltcen, minçatcen: occasinoac ere lehen beçala, edo maiz ago presentatcen, eta guertharçen: gogoa vrri, aldatcen errax: eta emazteac ere behin guerthatuç guero, ez falta equidin. Bada eguiteco, bada certan pensa. Badirudi hobe liçatequeyela, gaitz eratic, eta hafferreturic, partitcea, era elccar vtztea.

Poncu hunen gaitcean bi gauça nahi nituzque erran. Lehen bicicoa. Baldin etsaitu gabe, adisquideraluna hautsi gabe, ecin aparta baçaitzque, hauts eçaçu, etsai çaiteci. Eta orduan emazte hura hafferretcen dela, edo gaitceç iartcen dela icetisi agatic, eztaguiçula conturic. Ceren hafferretce hura, eta gaitceç iartce hura ha en gaitcean icanen da, eta ez çure. Eta halaber orduan, çutçaz gaizqui erraiten badu ere, paira eçaçu, ceren ceure merecia duçu. Halaco ezteyerañ halaco Zopac; halaco eguitecoec halaco ondorea, placer iraganec atsecabea ohi dute.

Bi garrena erran nahinuque. Baldin emazte hari, ceure amorantçari; adisquidetafuna



## BEGVIRATCECO ERREMEDIAC. 373

hautsi gabe, etsaitu gabe, eta liscatu gabe, aparta ahal baçaquitça, hala eguin çaquitça. Ordea nola apartatuco natçaica, etsaitu gabe? Ezra gaitz, baldin partida bioc, gaixtaquerian ičan çareten beçata, ontasunean accort baçarete, nola içaiteco bairuçue. Ceure gogoan deliberatu duçunean, debocinoan iartcera, beccatu suerte guztietatic, eta guztiz ere, emaztètaco etatic çamporatcera. Orduan emazte hari, ceinçequin behar ezten eçagutça içatu bairuçu, erran behar dioçu onez onetara.

Iaincoac daqui, nola nahia baicen ezpaliz, nahi nuqueyen, oraiño beçala, hemendic aicina ere çurequin egon, ibili, bici, eta seguitu. Baiña hunela iça itera baducusat ecen, çu, eta ni ere galduac goacilla, fin gaitz eguiteco bideangatela. Etahala gueure arreco eçagutça gaixtoari, alde eguin behar diogu, apartatu behar gatçaitça : eta hemendic aicina (gaiñeracoan adisquide guelditcen garela) halaco traturic gabe, garbiqui, eta prestuqui bici behar duçu. Nichala nahi nuque; hala deliberatu dut, gogo hartu dut, har eçaçu badaçuc ere. Eta iaquiçu ecen eztela hemendic aicina, halaco eguitecoz, enequin çer guehi ago mintçaturic : eta orai danic, nic hetçaz, adio erraiten deratçu dala. Era orduan bertceac ere, çuc beçala erraiteco luque eta eguiteco. Eta yste dut gutic falta leça-

## 374 HARAGVIAREN BECCATVTIC

queyela, baldin alde baretic edo bertceric, hunelaco bideric, molde onez idequi baledi. Huna nonduçun erremedio ona, hala arimaco nola gorputz eco, eta bai munduco ere: elccarrequin accordaturic, eta mintçaturic, elccarganic apartatcea, eta bereztea.

Ordea lehen munduac daquiela beccatutan egon direnec, eta beccatuaz denaz beçan batean elccar vtci dutenec, ezture handic harat, lehen beçala elccarrequin ibili,ian, edan, eta solhastatu behar: ezture, premiazco gauçetan baicen elccargana behar. Bataz occasinoac occasinoapitz ezteçan gatic; eta berriz bertcea escandalutic ezten gatic, eta munduari ere eztela ia hequen artean, lehen beçalaco beccaturic, aditcera emaitca gatic. Ceren obligatu çara exemplo onaren emaitera, eta munduari ere guiristino beçala biçitcen çarela eracustera: Halatan, ez çure fainduta funa aguer dadin, baiña laincoa lauda dadin amoreac gatic. Era halaber baldin bada nehor, çu ceneunden beçala, dagoenic, esportça dadin hura ere, çuc hartu duçun gogoaren, eta vorondatearen hartcera, eta çuc beçala beccatuaren vtztera.

## BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 375

## §. 2.

**E**Maztétaric apartaturic egoiteco gogoa, hain ongui hartu behar da çahartcean, nola gaztean. Ceren gogoaren aldetic denaz beçan batean, bada hurran, hurran hanbat peril çahartcean nola gaztean. Presuna bar denean hordi, eta emaccoi, ian-edanera, eta emaztétara emana; erraiten ohi dacomunzqui halacoagatic, vtcico dituelademborarequin emazteac, baiña ez edatea. Ceren emaztétaco indarra flacatuco baitçaica, baiña ez edatecoa hala. Bada iaquiçu ecen guiçon putanera, gaztean bethi hala içatu dena, çahartcean ere comunzqui hala ohi dela: ez obraz, baiña bai gogoz. Ceren gogoa bethi da gazte; eta gaztetafuneco vñantcec çahartcean ere gogoa errequeritcen dute. Çaharrac beccatu guti ago eguiten badu ere obraz. Ordea guti liaren eguiteco, gogoa bethi hartan daduca. Eta haut da san Gregorioc dioen beçala, Deabruaren vñantça, obraz ecin eraguin deçaqueyenean, gogoz bedere eraguitea. *Callidus perversarius noster, cum ab effectu operis exillitur, secreta cogitatione polluere nititur.* çahar içan agatic, gogoa emaztétan

Gregor. in  
Matth.

## 376 HARAGVIAREN BECCATVIC

badaduca vrrats guztiaz eronico da, edo hobequi minçatcera, bethi erotia egonen da. Eta hala beccatu hunetarie beguitatcea, eztago ez guztia adinean, eta ez indarrean, baiña bethi ere Iaincoaren faborea aitcinean hartcen dela, dago gogoan, eta gogoaren deliberamenduan. Eta doharfu da, emaztètaco indarra ioaiten çaicanean, hartaco gogoa ere ioaiten çaicana.

Eguia da, çahartuz guero, adin batera helduz guero, odola hotzten da, naturaleça flacatcenda. Eta hala çahartceco amurufia da Merander. *Senex amore captus ultimum malum.* Ceren hura baita gogoarena, naturaleça bortchatu nahizco arena, occasiño gabecoa, condnatceco feiñalea; eta Spiritu Sainduari, lehen erranden beçala, itfusi çaizcon beccatuetarie bat.

Halacoari erran ahal daqui dicayo. Vdo ceritçan bati erran ceicana. *Impono finem ludo, quia satis lufisti Vdo.* Aseo iocatu çara, çahartu çara, ez guehi ago bihur. Accaba iocoa, cerori accabatu gabe: viz çuc hura, hare çu vti çabe. Baiña Vdo hare etçuen vti: eta hala fin gaitz eguin çuen, eta eguinen duçu çuc ere, baldin çahrtcean bedere gogoa hartarie aldaratcen ezpaduçu.

Eta gogoa diot. Ceren eguiçu milla erremufina, eta obra on, eta çaren vrrhez cargatua. Baiña ezta probetchu, baldin bertce aldetic

## BEGVIRATCECO ERREMEDIAC. 377

detic gogoa emaztètan badaducaçu. Sinherf-  
eçaçu ecen laincoarequin batean, guztia go-  
goan dagoela.

Haur da hirur garren erremedioa, emazté-  
taric begviratecco, hequin ez cutfatceco, eta  
cutfatuz guero ere, garbitceco, gogoaren de-  
liberamendua, vorondatearen bertce aldera  
deliberatuqui itçulitic, iartcea, eta egoi-  
tea.

*Haraguiaren beccatutic begviratecco laur gar-  
ren erremedioa, ez alfer egoitea.*

## CAP. XXXVIII.



Rabaila çaitè, eguirecotan ibil  
çaitè, cerbaitetan emplega çaitè,  
alfer egoitetic begvira çaitè, eta  
halatan begviratuco çara, emaz-  
téquin huts eguitetic ere. Ceren  
alferqueriatic heldu da amurusia emaztéta-  
co gogoa, orhoitça pena. Eta bai thalicia pen-  
fatcea, eta nahastecamenduen eguitèa ere.  
Halatan erraiten du Aristorelec. Neccaça-  
leric, eta laboraritic baicen ezten herria, de-  
la herriric hoberena.

Ceren neccaçaleac, bere nequeaz, eta tra-  
bailluaz baita duca contru, eta ez amurufiaz,

Bb

*Arist. lib. 5.  
Politica*

## 378 HARAGVIAREN BECCATVTIC

eta ez nehoren nahastecatceaz. Traballatcen dena, edo eguirecotan dabillana, eztu haraguiac tentatcen-handi. Aitcitic trabailuec, atiecabèc, eta eguitecoec, bertce eguitecoric emaiten diote.

Hieron. ad  
Ruflicum.

Eguia hunen fragatceco contatcendu san Geronimoc : Egiptoco monasterio batean cela fraide gazte bat, haraguiac bortitzqui tentatcen çuena, bero hufsez bethi ciraquiena, hain iraquin ecen baruru agatic, disciplinatu agatic, eta bertce anhirz enfeiu eguin agatic, ecin iraungui baitceça queyen su hura, eta ez egotz here ganic hartacogoa. Monasterio hartaco Abadeac, eguiteco haren berri iaquin çuenean, iccussiric ecen fraide hura galtceco periletan cela, eguin çuengogoeta, cer moldez atheraco, eta libratuco çuen peril hartaric. Eta idurituric ecen tentamendu hec guztiaç, alferqueriatic, eguiteco gabe, aise, bere gogara, placerera, eta atsecaberic gabe egoitetic heldu çeitçala, erauzaraci çeraucan falso testimonio gaixto bat. Accusatu çuten bi leccucoc Abadearen aitcinean, Abadearequin berarequin adituric. Eta baciharducaten elccarren atean. Accusatuac ykha, oihu, falso cela, gueçurra cela, et cela halacoric, et çuela hobenic. Baiña leccucoec, mantena, on eduqui, hala cela. Hunela cebiltçala, eta Abadea ere sententia emaitetic berariaz guibelatcen cela,

## BEGVIRATCECO ERREMEDIAC. 379

iragan cen vrthe bat. Eta guero haren bu-  
ruan, galdeguin ceraucan Abadeac fraide ha-  
ri, ea nola cihoacon bere haraguiarequin? ea  
lehen beçala tentatcen çuenz? Eta ihardetfi  
cioen. *Papa, vivere non licet, & fornicari libeat?*  
Certenta? Eztacufaçu certan naicen? Ezta-  
cufaçu biciaz etfitu hurrar dudala? Loric ere  
ecin daidique dala? Ioan dira ioan leheneco  
gogoeta hec, orai bertcec deraut gogoeta,  
eta eguiteco. Iccuffaçu cein artez eman cio-  
en. Adade harc chedeari, eta nola atsecabea-  
ren emaitiaz, eta alferqueriaren, eta aifia-  
rent quentceaz, quendu cerauçan haraguiaren  
tentamenduac ere.

Gedeaci

*Amor est animis vacantis passio.* Amorio de-  
fordenatua, astia duena baithan, presuna  
alferrean edireiten, eta ostaratcen da, hari  
dagocá arrotça, eta vianda da. Hargatic pin-  
tatcen çuten Venus iarriric. Ceren amorioa  
edo amurusia, alferqueriaz, aife, eta gueldi  
egoiteaz hazten, eta mantenatcen baita. Eta  
badio Ouidioc ere. *Otia si tollas, periere cupidi-  
nis arcum.* Baldin quen baitçatçu alferqueriac  
galdu dirataque Cupidoren arcuac, eztu ne-  
hor bere tragacéz çaurtucó?

Chrysoft.  
Hom. 14 in  
cap. 1. MarQuid lib. 2.  
de remed.  
amotis.

## 380 HARAGVIAREN BECCATV TIC

## §. I.

Casla lib. 10. cap. 8. **C**omunzqui alferrac ian edanean, eta Cemazté tan ohi daduca gogoa. Hala erraitendu Caslanoc. *Mens otiosa nihil aliud nouit nisi de escis atque ventre.* Alferrarengogoetac, eta solhafac, ian-edanaz, eta sabelaz dira, eztu bertcetari pensatcen ere. Halatan erraiten cioen san Geronimoc Rusticori. *Ama studia literarum & vitia carnis non amabis.* Onhets eçaçu estudioa, eta ezçu haraguiaren beccatuan atseguinic hartuco, eta ez gogoric eduquico. Hartcen baduçu estudioa fintqui, vteico duçu emaztea lachoqui. *Hac fuit iniquitas Sodome sororis tuae, superbia, sacuritas & otium.* Ierusalem, çure aizpa. Sodomaren beccatua, eta galgarria, içancen, vrguillutafuna, aslea, eta alferqueria. Alferqueriarequin barean eguin çituen Sodomaco hiri hare hainhur shandiac, eta beccatu khiratsac, non igorri baitceraucan laincoac, ez lur estaltceço, eta ez vr garbitceço, baiña bai su, eta khar erratceço, eta chispiltceço.

Hicton. ad Rusticum.

Lajoqui. Ezech. 10.

Gispiltceço.

Erregue Dauitec, trabailatcen cenean guerlan bere presonaz cebillanean, contuguti eguiten çuen emaztez. Baiña astiari, eta astiari iatritic, mandatariz, eta bere ordainez



BEGVIRATCECO ERREMEDIAC. 381

eguitecoen eguiten hasi cenean, atceman cen bere hala, eta erori bertceren emaztearquin. Salomon ere temploaren eguiten hari cen bitartean, eztugu edireiten enganatu çutela emaztec, baiña temploa accabaturic, alferqueriari emanceicanean, fice atrapatu cen.

Bada Sanson ere guerlan cebillaiño, ecia egun daiño garaitu çuten bere etsaiec, baiña eguitecoac, eta guerlac vtciric, emazte baten altçoa bere placerera etçan cenean, emazte harc berac enganatu çuen, eta guero etsaiec hartçaz nahi çutena eguin çuten.

*Vigilate ergo fratres mei, quia nec sanctiores Davide, nec fortiores Sansone, nec Sapientiores Salomone vos esse vides.* Çaudete beraz iratçartiric ene anaia maiteac (dio san Agustinec) ceren eztaculat nic, çarerela çuec, David baiño faindu ago, Sanson baiño valent ago, eta ez Salomon baiño iaquinfun ago.

August. ad fratres in exemo. ser. 17. T. 10.

*Quaritur, Aegistus quare sit factus adulter? in promptu causa est, desidiosus erat.* Galdeguitenda, cergatic eroricen Egisto adulterioan? Prest da arraçoia; ceren alferra baitcen. Bada molde berean erran ahal diteque, Dautez, Sanfenez, eta Salomonez ere. Ceren hec guztiaç, bertceric anhitz beçala alferqueriac galdu cituen edo galtceco periclean ibeni cituen.

Quid. lib. 1. de remedio amoris.

Beraz hunelatan cerbaitetan emplega

## 382 HARAGVIAREN BECCATVTIC

çaitc rrailla çaitc, alferqueriatic beguira  
çaitc. Ceren halatan emaztétaric cre begu-  
raruco. çara.

*Haraguiaren beccatutic beguiratceco borz gar-  
ren erremedioa, consideratcea cœm ttipia, eta la-  
burra den harsaco placera.*

## CAP. XXXIX.



Maztetaric beguiratceco, hetara ez hain ifuria, ero-  
ria, eta gogoia egotcia e-  
goiteco, on liçateque, cen  
bait aldiz bedere, baccar-  
ric çaudenean, gogoera  
eguitea, eta ceure baithan  
consideratcea, ea nolacoa,  
handia, ala ttipia, lucea ala laburra den e-  
maztétaco placer hura. Ceren baldin ttipia,  
eta laburra baldin bada, erhoqueria handia  
da, hargatic presunac bere buruari, hanbat  
atsecabe, eta eguiteco, nola anhitzetan ere  
emaiten baitio, emaitca.

Bada frogatu duten guztieç baretan, eta  
boz batez, aihortcen, erraiten, eta cof-

## BEG VIRATCECO BRREMEDIOAC. 383

festatcendute, plazer hura, plazer ap-  
purra, eta laburra dela, hafi deneco accabatu  
dela: eta are batçutah hafi gabe ere, accabat-  
cen dela. Ceren plazer hartan berean ere, co-  
munzqui, plazer baiño, dos plazer, guehi ago  
edireiten baita. Vizten ditut plazer haren  
aitcin-gübelac, an arteraiño, eta ondo-  
reco eguitecoac, eta aifecabeac, handiac  
baitira, baiña hartan çareneco bereco place-  
raz mintço naiz: Eta diot ecen orduan ere,  
hartan çarenecan ere, cerbait escastafun, cer-  
bait descontentamendu içaiten duçula; eta  
hura dela causa, orduan ere, guztiacongui  
contaçera, plazer baiño desplazer guehi ago  
çaiten duçula. Hala erraitendu san Basi-  
lioc.

*Oblectatio corpora voluptatis, plus doloris* Basil. in.  
*habet quam voluptatis.* Haraguiaren pla- Psal. 33.  
cer corporalac, dolore, eta desplazer  
guehi ago du, atseguin eta plazer baiño. Ar-  
racoinequin galdeguitendu iondone Pauloc  
ere. *Quem fructum habuistis in iis in quibus nunc*  
*erubescitis?* Cer fruitu, cer irabaci, eta pla-  
cer içan cenduten orduan, orai ahalquez ere  
bururic ere ecin ailchatuz, çaudeten beçça-  
tu hetan? Are orduan ere etcenduten pla-  
cer ossoric hartu, etcineren aspertu, eta ez  
asse. Eta ezta miretstecco ez assetcea. Co-  
ren sua beçala da haraguiaren beççatua; eta  
suac eztu behin ere erraiten alco duela

## 384 HARAGVIAREN BECCATVTIC'

Prou 30.  
Glof or-  
din. in cap.  
7. Luc.

Hieronij ad  
matrem.

Glof Gyra-  
na in cap. 3.  
Prou.

*Ignis nunquam dicit, sufficit.* Ceren Glofac dio-  
en beçala. *Voluptates semper habent famem sui.*  
Haraguiarem placeraç, beñhi dira, placet  
goffem. Eta iduricen baçaitçu ere, baldin  
behin ceure defira defordenatua compli ba-  
ceneça, hain bertcez sofega cindezqueycla,  
enganatten çara. Ceren san Geronimoc dio-  
en beçala. *Libido nunquam satiatur, & cum  
videtur extincta reaccenditur, vssu crescit & de-  
ficit.* Haraguiaren placera, eztabehin ere  
guztiz affecten, eta ez osfoqui iraunguitcen.  
Eta batçutan affecten, eta iraunguitcendela  
badirudi ere, berriz bere hala goffecten, eta  
pitztenda. Eta are dembora gutiren barren-  
nean, lehen baiño biciqui ago iratçartcen da.  
Hala erraitendu Glofac. *Luxuria et si ad ho-  
ram satiatur, postmodum tamen ad appetendum ar-  
ditius inflamatur.* Nola guiconac emazteari  
diaducon amorioa; bere eguitez baita, natu-  
ral, amorio hura appurbat hoztu agatic ere,  
bere hala naturaleçac berac berotçendu, itaun  
gui agatic, pitztendu.

BEGVIRATCECO ERREMEDIAC. 385

5. 2.

**E**Rraitendu Alciatoc. *Heu miser in medijs*  
*susens, stat Tantalus undis. Et poma esarsens*  
*proxima, habere nequit.* Tantaloo on-bebar hu-  
 ra gosse eta egarri cen : eta baquen oinen az-  
 pian vi franco, eta buruaren gainean cõhartz  
 bar, fruituz dethea. Ordea edan nahi que-  
 nean, vrac ihes eguiten cioen, eta satetacoan,  
 çuhartz adarrac goititzen eta guratcen ceit-  
 çan, ecin erçiers cõtçaqueyen Ianhariz eta  
 edariz inguratua cegoen, eta ala baiña gosseac  
 eta egarniac hilcera ceraman. Hala da bada  
 haraguiaren arseguinetan eta placeretan da-  
 billana ere.

Alciurus.  
 Emblem.  
 84.

Gosse da, egarri da, eta emoçu nahi duen  
 beçanbat, sar bedi beguietaraino, baiña ezti-  
 teque asse, ezteiteque ossõqui compli eta ez  
 contenta. *Libido lassari potest, satiari non potest.*  
 Vñhs ahalditeque eta nehka, baiña ez asse.  
 Hala erraitenda Erromaco andre batez, han-  
 batibili cela guçonequin non hetaric partitu  
 baitcen nekharurie, baiña ez asseric. *Et las-*  
*sata viris, sed non satiata recessit.* Aitcitic edan  
 ago, egarri ago; vlatu ago, nahi ago. Hara-  
 guiaren defira defordenatua, auaricia beçalz  
 da. *Crescit amor nūmi, quantum ipsa pecunia*  
*crefcit.* Cenbaçenaz diru guechi ago, hanba-  
 tenaz guticijos ago. Hala da bada haraguiaren

Destru-  
 ctor.  
 Vitiõrum

Iuuen.  
 Satir. 6.

Iuuenal.

## 386 HARAGVIAREN BECCATVTIC

beccatua are. Seguitu ago, nahi ago, vsatua-  
go barren ago; asse ago, gosse ago:

Baldin vste baduçu, emaztetan anhitz vsat-  
ceaz, emaztètaco guticia, gutituco çaitçula,  
enganatcen çara. Aitçitic nola bat bedera an-  
hitz iateaz eta anhitz edateaz, iale ago eta  
edale-ago eguiten baita: hala emaztequin  
vsatceaz ere, eguiten da emaccoi ago, eta  
emaztètara eman ago.

Haraguiaren appetitua hobequi hiltcenda  
ez vsatceaz, vsatceaz baiño. Vrtzen ditur bert-  
ce erremedioac, baiña erremedio naturalic,  
haraguiaren tentamendu guti içaiteco, ezta  
halacoric, nola ez vsatcea. Ceren ez vsatceaz  
ançutccenda haragui, ez anfiatua, eta ahantcia  
iarcenda. Baiña vsatceaz berhi ernatua, irat-  
çaria eta orhoitua egoitenda. Hala edirenen  
duçu, ecen guiçon bat alharguntcen denean,  
bere hala, haraguiaren lehenbico orhoitça-  
penean, ezcondu nahiz dabillala, ecin dago-  
queyela. Ceren leheneco vsantçac erreque-  
rit cen baitu. Eta halacoac nola bera ecin bai-  
tagoque, vste du ecen bertce guziac ere hura  
beçala direla, harc beçain iguritçitça eta  
pairn guti dutela. Baiña bere burruaren bai-  
cen, berriric ez taquiçna beçala mintço  
da. Ceren vsatcen eztuenari, haragui  
hildna, sofegatua, sorttua eta ez anfiatua da-  
goca.

Beraz ez vsatceaz, etfiçua eta gogatua çgoia

## BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 387

teaz, eta guztien buruan haraguiaren placera, cein gauça appurra eta laburra den consideratceaz, eguiçu. Ceren halatan ceure buruari sofegamendu handi bat emanen dioçu eta haraguiaren beccatutic begviratceco ere borz garren erremedioa edirenen duçu.

---

*Haraguiaren beccatutic begviratceco sey garren erremedioa, hartaco placera cein ondore gaixtoa, bere ondoric vtzen. duen, consideratcea.*

## C A P. X L.



Araguiaren beccatutic begviratceco, sey garren manamenduaren complitceco, erremedio handia bada ere, haraguiaren placera cein gauça appurra eta laburra den consideratcea; ordea ezta itipi agoa, placer itipi labor harc, cein ondore gaixtoa bere ondoric vtztē duen, halaber consideratcea, eta ongui gogoan edquitcea. Ceren placera iragan den beçain site, han da desplacera, han da bere hala damua, vtziquia, atsecabea eta eguin ospalu

## 388 HARAGVIAREN BECCATVTC

Aul. Ge.  
lics lib. 1.  
cap 3.

nahia. Contatcen du Aulo Gelioc Corintio-  
co herrian cela Lais ceritgan emazte eder bat,  
famatua, amoltsua, plazer eguillea, eta bere of-  
ficioaren valiatcen ongun ciaquiens. Boda  
egun batez Demostenes Philolopho handi  
hora emazte haren aldetic iragaiten cela, qui-  
licatu cen, ernatu cen, limbuttcen hasi cen :  
eta galdeguin cioen Lais berari, ez cenbana  
saltcen cen fruitua, zer valio çuen mercatal-  
goac? Eta alegueratic, vstez ecen ihicia sarean  
çuen, escatu ceican suma handi baten, guchi  
ago botz ehun ezcutoren bastio, handiari han-  
diqui. Demostenec aditu çuenoan ema-  
mthiriaren demanda, ihardetsi cioen, ez vste be-  
çala. *Ego penitere non tanti emo.* Eztut nic vr-  
riquitçca edo vrriquia horrein garastia erof-  
ten. Erran baillio beçalà. Badaquit andrea  
ecen baldin niçorai iragan bançça çurequin  
neure appetitu defordenatua, vrriqui lequidi-  
que dala bere hala. Bada vrriquitçe hura, on-  
doro damu hora, eztut horrein cario erosten  
eta ez hargutic hanbat ditu emaiten. Escarnio  
eguin vstea, guelditu cen escarniatua. Eta  
Demostenec eman çuen hartan aditcera, bec-  
catuari behiere bere ondotic vrriquia darrai-  
cala. Munduco plazer defordenatu hautan,  
appetitua hillez çero, affez guero, goçatuz  
guero higuincenda vianda, ethortcenda vrr-  
quia. Ecin erran diteque cein erhotua ibili  
cen Amnon Erregue Dauiten lehenbicico se-

ulurac. in  
Apholo-  
che.



## REGVIRATÇECO ERREMEDIOAC. 389

mea, bere arreba Thamarren ondoan, cenbat penlu, gogoeta eta irgul-inguru eguin çuen, haren erdiefeco. Baina guero erdietfi eta goçatu çuenean, hain gaitz etfi çuen, ecen bere hala, iccuffi ere nahi gabez, etchetic egotci baitçuen.

Erregue Lyfmacoc, egartfua Iaunduric, behin edatea gatic, errendatu çuenean, errançuen, edan ondoan edanaz vrriquituric, triftura handi batequin. *O dy quam parua voluptatis causa, me ipsum ex Rege seruum effeci.* Ha Plutan. in Aphothe. Iainçoaç, ala ni placer appurra gatic, behingo vr-hotz edatea gatic, Erregue eta libre nintcena, muthil eta gathibu eguin bainaiz. Hala erran ahal deçaque bada, haraguiaren placer appur baten gatic, deabruaren azpico eta gathibu eguiten denac ere. Ala ni, deus gutigatic, hunetara bainaiz, Iaincoarequin adifquide nintcena, etfaitu baifiaiz.

## §. 2.

**H**Araguiaren placerac cein guti iranten duen gogoeta eguitera: Placer haren erdiefeco, cenbat travaillu, gau eta egun gaixto iragan behar den pensatcera: eta guztien gainetic, placer eztheus hanc, hafi deneco, edo hafi gabe accabatcen den hanc, cenbat pena eta atfecabe emaiten duen; eta cein ondore gaixtoa bere ondotic vtztch duen considerat.

## 390 KARAGVIAREN BECCATVIC

cera, ez tur vste, liçate que yela bai ere, eguiteco hartan sar lire que yenic; ez behintçat adimenduan dagoenic, centçua burnan duenic, zoro era itsu eztenic.

Eta hartan dabilçanec berèc ere eçagutzen dute, eçagutzen, hutz eguinat doacilla, anhitz calte handic errecibitzen dutela, bai concientcian, bai ohorean, bai ofalunan eta bai haciendan ere.

Eta hala vste dut ecen, ez tela bat ere, bere desira iragan duenean, tristetzen eztenic, vrritquitzen etçai canic, eta bere baithan, ez tuela guehi ago bihurtu behar, cerbait gogoeta, eguiten eztenic. Ceren orduan bere berri hartan appur bat hotztua dateque, ematua dateque. Ordea nola guero berriz bere leheneco appetitura bihurcen baita: hala bihurtzen da halaber, bere leheneco toquira, tornura, eta lohira. Eta nola vli-farfailla, ezpaita, hegalac erra arteiño, candelaren ingurunetic vrruntcen: hala amurus icfutua ere, ezta, arima, gorturza eta hacienda honda arteiño cençatcen.

Papillio.

Eta hunen arracoïña da. Ceren hala dabilanac, ezpaitu abreac baiño guehi ago, et horqui çunera behatcen: eta ez placer hare cein ondore hotza era atsecabetsua, bere ondotic vztzen duen behar beçala consideratcen.